



UNICEF Euskal Herriko Batzordea
2020ko uztaila

unicef 

40 PROPOSAMEN POLITIKO EUSKADIRENTZAT

HAURTZAROA ETA NERABEZAROA MUGIMENDUAN

1. SARRERA	3
2. HAURRAK ETA NERABEAK, LEHENTASUNA 2020-2024 LEGEGINTZALDIAN	7
2.1. Haur eta nerabeen interes gorena kontuan hartzen dela bermatzen duten mekanismo instituzionalak.	7
2.2. Inbertsio publikoa: EAEko aurrekontuetan ikus eta identifika daitezkeen haur eta nerabeen aldeko politikak.	8
2.3. Haurren parte-hartzea eta zaintza: haurrak eta nerabeak erakundeetan ordezkatzuta egon behar dira eta kontuan hartu behar dira politika publikoen garapenean.	9
2.4. Datuak biltzea eta aztertzea: haur eta nerabeen errealitatea ezagutzea eta adieraztea.	9
3. HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA KALITATEZKOA	10
3.1. Inbertsio publikoa hezkuntzan	11
3.2. Eskola-uztea eta eskola-porrota	12
3.3. 0-3 urte bitarteko haur-hezkuntza	14
4. EKITATEA ETA GIZARTERATZEA	15
5. HAUR ETA NERABEEN BABESA	17
5.1. Prebentzioa eta detekzioa	18
6. 2030 AGENDA EZARTZEA, HAURREN ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK	19
7. GARAPENERAKO LANKIDETZA: AUKERA BAT MILIOIKA HAUR ETA NERABEENTZAT	20
I. ERANSKINA	
EAE-RENTZAT 40 PROPOSAMEN POLITIKOEN LABURPENA	22



SARRERA

EAEko biztanleriaren %16 baino gehiago 18 urtetik beherakoa da. Haur eta nerabeei eta haien familiei arreta berezia eskaini behar zaie 2020-2024 legegintzaldiko hauteskunde-programetan eta ekintza-proposamenetan.

Haurrek eta nerabeek ez dute hauteskundeetan parte hartzen, baina hauteskundeetan erabakitzen denak lotura zuzena du haien eskubideekin eta egungo eta etorkizuneko ongizatearekin. Erronkaz beteriko testuinguru global eta konplexuan bizi gara, baina mundu hori aukeraz beteta ere badago; izan ere, **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak** eta **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak** esparru bikaina eskaintzen diote EAERI eta, bereziki, haur ahulenei eragiten dieten erronka handiei erantzuteko. Haurren eta nerabeen eskubideen eta ongizatearen babesak, **inor atzean ez uzteko** agindupean, politika publikoen erdigunea izan behar du.

Aurreikuspen guztiek adierazten dute COVID-19aren pandemiatik sortutako krisiaren ondorio ekonomiko eta sozialak oso handiak izango direla. Horregatik, eta pandemiak erakutsi duelako herrialde guztiak direla larrialdi mota horien aurrean kalteberak, ezinbestekoa da berreraikuntzarako neurriek arreta jartzea gizarte erresiliente baten oinarri sendoak ezartzean, etorkizunean krisi berriei aurre egiteko prest egon gaitezen.

2008ko krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorio nagusiak oraindik ere agertzen dira, eta are kronikoagoak egin litezke, horri buruz ezer egiten ez bada. Euskal haur eta nerabeen %26¹ baino gehiagorentzat, zaugarritasuna egiturazkoa bihurtzen ari da, pertsona guztiei eragiten dien kontratu soziala hautsiz. Erronka eta aukera horietan guztietan, haurrak kontuan hartu beharreko funtsezko rola

jokatzen ari dira (eta jokatu egingo dute).

Haurrak eta nerabeak garrantzitsuak dira, eta haien gizarte-balioa etxeko eremutik askoz harago doa; familien kontua da, baina baita guztiona ere. Haien aldeko apustu politiko eta soziala egin behar dugu, posiblea eta beharrezkoa delako.

Haurrei arreta eskaintzen ez dieten erakunde publikoek eta haurrak babesten eta garatzen laguntzeko eginkizuna bere gain hartzen ez duen gizarteak gero eta kostu publiko eta pribatu handiagoak onartu beharko dituzte etorkizunean. Aitzitik, haurrentzako lehentasun eta ekintza argiak dituzten herrialdeei erreparatu behar diegu, eredu ekonomiko eta sozial bidezkoagoetan eta arrakastatsuagoetan eragina izan baitute. Herrialde horietan, pandemiaren ondorioak modu positiboagoan berreskuratu dira.

Haurren eskubideak bermatzeko, konpromiso politikoa behar da, ideologietatik harago joango dena eta erantzukizun politikoko maila guztiek eta alderdiek beren gain hartuko dutena. UNICEF Euskal Herriko Batzordeak Haurren aldeko Nazio Batuen Funtsekin ordezkatzen du Euskadin, eta gaur egun 24.220 bazkide ditu (2020ko maiatza), Estatu mailan 400.000 baino gehiago, haurrak agenda politikoen erdigunean jartzeko misioarekin bat egiten dutenak.

Haurren ongizatearekiko eta eskubideekiko erantzukizunari esker, alderdi politikoek herritarren

¹. %26,4 pobrezia eta gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden etxeko unitateetan (AROE) dauden adingabeak dira. Enplegu eta Gizarte politiketako Saila. Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta (PGDI) 2018. Ikusmirak - Haurren eta Nerabeen Behatokia.

benetako kezkekin bat egin dezakete. Gainera, herritarrek gaur egun eta etorkizunean dituzten interes eta asmo desberdinen arteko topaketa sustatzen dute. Haurrei eragiten dieten gaiak – pobrezia eta desberdintasuna, hezkuntza edo indarkeriaren aurkako babesa – funtsezko erronkak dira gure gizartean, eta adostasun sendoa dago horien gainean: konponbideak bilatzeko beharra eta premia. Onurak askotarikoak izango dira, eta haurtzaroan ez ezik, gure gizarte osoan ere izango dute eragina.

Horregatik, eta datorren legegintzaldia dela eta, gure ustez funtsezkoak diren hainbat gogoeta eta proposamen aurkeztu nahi ditugu, haurren eta

nerabeen eta haien familien ongizatean eta eskubideetan aurrera egiteko helburu bikoitza lortzeko, bai eta pertsona guztientzako ingurune bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko bidean aurrera egiteko ere.

EAEn badugu **FAMILIA ETA HAURTZAROAREN ALDEKO EUSKAL ITUNA**, EAEn haurren eta familiaren politiken arloan zuzeneko eskumena duten erakunde guztiek sinatua, 2018ko urtarrilaren 18an, Eusko Jaurlaritzak, 3 Foru-Aldundiek eta EUDELeK sinatua, eta Eusko Legebiltzarra atxiki zitzaion (gehiengorik gabe). Bertan, lehen aipatu dugun helburu bikoitzean laguntzeko funtsezkotzat jotzen ditugun konpromiso batzuk jasotzen dira.

Familia eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itunaren konpromisoen dekalogoia

1. Seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea eta haurren pobrezia prebenitzea, familia-aniztasuna errespetatuz.

2. Gurasoek seme-alabei behar duten denbora guztia eskaini ahal izatea erraztea, gizarte-denbora familiaren premiei begira egokiago antola dadin sustatuz eta **gizarte-antolaketa erantzunkidea** bultzatuz.

3. Gazteen emantzipazioa eta bizi-proiektu autonomoak bultzatzea, nahi izanez gero seme-alabak izan ditzaketen familia-unitate berrien prestakuntza errazteko.

4. Gurasotasun positiboko, haurren osasuneko, gatazken prebentzioko eta familia-bitartekaritzako programak indartzea, gurasoen guraso- eta hezkuntza-gaitasunak indartzeko, ohitura osasungarriak sustatzeko eta familiaren barruan sor daitezkeen gatazkak konpontzen laguntzeko.

5. Haur guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu irisgarriak, eskuragarriak eta kalitatezkoak jaso ditzaten laguntzea.

6. Hezkuntza-politikak birbideratzea eta eskola-sistema inklusibo eta hezkidetzaillearen eraikuntzan sakontzea,

ekitatea bermatzeko eta desabantaila sozial eta ekonomikoko egoeran dauden ikasleen zailtasunak konpentsatzeko gai izango dena.

7. Haur eta gazte guztiek, baldintza berberetan, **gizarte, hezkuntza-, kirol-, kultura- eta aisialdi-baliabideen eta -ekipamenduen** eskaintza zabalagoa eskura dezaten laguntzea.

8. Familia- eta haurtzaro-politiken gobernantza hobetzea eta **gizarte- eta hezkuntza-esparru** erreala garatzea.

9. Erakundeen arteko eta diziiplina anitzeko lankidetzarako konpromisoa, politika publikoen hainbat arlori eragiten dieten gai horiek dimentsio anitzekoak direlako: genero-ikuspegia, hezkuntza, berdintasuna, osasuna, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak, kultura, enplegua, etab.

10. Gai horiekin zerikusia duten eragile pribatuak sentsibilizatzea, bereziki lan-harremanetan zuzenean inplikatura daudenak, hala nola sindikatuak eta ugazaben elkarteak, **eragile publiko eta pribatuen arteko beharrezko lotura** dela eta.

Proposamen politiko hauek hiru oinarri nagusitan oinarritzen dira

1 Haurren eskubideak betetzea konpromiso publikoa da, eta haren interes gorena bermatu behar du, bereziki zaugarritasun-egoeran dauden gizabanako eta taldeen kasuan. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak (HEH) haurren eta nerabeen eskubideak gauzatzeko politiketan behar beste inbertitzeko betebeharra dakarkie gobernuei.

2 Haurtzaroan eta nerabezaroan inbertitzea funtsezkoa da oraingo eta etorkizuneko belaunaldien garapen jasangarrirako. Nahikoa, eraginkorra, inklusiboa eta efizientea izan behar du. Bidezkoa da, errentagarria eta pertsona guztiei egiten die mesede. Gainera, onura handiak eragiten dituen aukera ekonomiko adimentsua da, batez ere haurren garapenaren une zehatzean gauzatzen denean eta haurtzaro ahulenera lehentasuna ematen zaionean. Haurtzaroan inbertitzeak onurak baino ez dizkio ematen gizarteari: garapen ekonomiko eta soziala sustatzen du, produktibitatea handitzen duelako eta hazkunde

ekonomiko iraunkorra bermatzen duelako. Gainera, funtsezko estrategia da gizarte bidezkoagoak eta inklusiboagoak eraikitzeak, gizarte-kohesioaren ehuneko handiak dituztenak, eta pobrezia- eta bazterkeriaren belaunaldi-transmisioa apurtzeko modu eraginkorra da.

3. Ekitatezko garapena bakarrik da garapen jasangarria: badakigu ekitateak gizarte kohesionatuagoak sortzen dituela eta desberdintasuna borondate politikoarekin saihesten dela. Ekitatea sustatzen duen inbertsio soziala bidezkoa eta errentagarria da, ez bakarrik gehien behar dutenengana iristea duelako helburu, baita inbertsio horren izaeragatik gizartearen oro har duen eragina maximizatzen duelako ere. EAEn, desberdintasun-mailak aldaketa demografikoa, produktibitate ekonomikoa, gizarte-kohesioa eta konpromiso demokratikoa bezalako alderdi garrantzitsuak zehaztuko ditu. Haurrak eta nerabeak funtsezko eragileak dira (eta izango dira) edozein gizarteren bilakaeran eta iraunkortasunean.



Dokumentu honen helburua da hartutako hamar konpromiso horiek berriz pentsatzea eta UNICEF Euskal Herriko Batzordeak 2020-2024 legegintzaldirako egindako beste proposamen batzuk gehitzea, haurrak eta nerabeak Euskadiko pertsonengan inbertitzeko protagonista eta oinarri gisa sustatuz. Hori guztia egiteko, kontuan hartu behar da COVID-19ak sortutako egoerak talde politiko guztien parte-hartze eta erantzukizun handiagoa eskatzen duela.

Orain hasten ari garen berreraikuntzarako bidean – EAEn legegintzaldi berria hastearekin batera –, COVID-19aren krisitik irteteak Garapen Iraunkorrerako Helburuek (GIH) aldarrikatzen duten gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ereduaren aldaketa aprobetxatu behar du. Erronka da munduko ondasun publikoak babestuko dituen

gizarte bat sustatzea, zerbitzu publikoetarako sarbide unibertsala indartu eta desberdintasunak murriztuko dituen: laburbilduz, bizitzaren zainketa erdigunean jartzea, bereziki ahulenak direnen eskubideak babesteko eta bermatzeko neurriak hartuta.

Orain herritarrek normaltasun-egoera berri baten eraikuntzan gehiago parte hartzea eskatzen dute, garai berrien eraikuntzan parte hartzea eskatzen dute eta horrek, besteak beste, **kontsulta, koordinazioa eta komunikazioa** esan nahi du. "3K" hauen bidez, administrazioa gero eta gehiago jabetzen ari da araudi bat argitaratu aurretik eragileei galdetzeko beharraz, baita administrazioen arteko

eta arlo eta sailen arteko koordinazioaz ere. Horrela, baliabideak eraginkorragoak bihurtzen dira eta helburu argiagoak ezartzen dira gizartearentzat. Era berean, funtsezkoa da erabakiak modu sinple eta argian komunikatzea.

Gardentasunerako eta herritarren kontsultarako mekanismoak indartu behar dira lehendik dauden kanalen bidez, erakundeen arteko eta barruko koordinazio-bideak eta -mekanismoak hobetu behar dira. Baita komunikazio-bide berriak aztertu ere, ezarri nahi diren aldaketen simulazioak eta erakustaldiak eginez, konfiantza eta erantzukizuna sortuz.



Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) aldeko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ereduaren aldaketa aprobetxatu behar du COVID-19ko krisitik irteteak.



HAURRAK ETA NERABEAK, LEHENTASUNA 2020-2024 LEGEGINTZALDIAN

Hautzaroarekin konprometitutako Gobernuak eta Parlamentuek haurrak eta nerabeak identifikatzen dituzte beren ekintzen lehentasun gisa. Beren ahotsak kontuan hartzen dituzte eragiten dieten erabakietan eta, horrez gain, beren eskubideak benetan gauzatzera bideratzen dute inbertsioa. Gainera, haien errealitatea zehatz-mehatz ezagutu nahi dute, politika egokiagoak eta eraginkorrak diseinatu, eta politikek beren bizitzetan duten eragina ebaluatu.

2.1. Haur eta nerabeen interes gorena kontuan hartzen dela bermatzen duten mekanismo instituzionalak.

Koordinazioa ez da estrategien osagarri edo bigarren mailako ekintza; aitzitik, haurren eta nerabeen eskubideak babesteko estrategiarik eraginkorrenetako bat da.

Illo horretan, funtsezkoa da mekanismo instituzionalak ezartzea (arloan artekoak, barrukoak eta kanpokoak), haurrak eta nerabeak modu integralean aintzat hartzeko, eta haurren eta nerabeen bizitzetan eta familietan aldaketa sustatzeko eskubideen alde egiten duten administrazioen eta erakundeen arteko koordinazioa bermatu eta errazteko.

Horregatik, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hau proposatzen du:

1 Haur eta Nerabeei buruzko Euskal Lege Integrala izapidetzea, haur eta nerabeei berariaz zuzendutako neurriak eta politikak definituko dituen, beren nortasuna, interesak eta beharrak eskubide osoko subjektu gisa aitortuz.

2 Euskadiko Haur eta Nerabeen Behatokiari gaitasun eta baliabide gehiago ematea. Behatoki hori 2007ko abenduaren 4ko 2191 Dekretuaren arabera sortu zen, tresna tekniko gisa, EAEko haurren eta nerabeen errealitatea eta garatutako politiken eragina etengabe aztertzeko.

3 Tokiko eta lurraldeko datuen eta adierazleen kalitatea hobetzea, eta haurren egoerari buruzko kalitatezko ikerketa sustatzea.

4 Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko Lege Organikoak arautzen dituen arau-xedapenetan haurren eta nerabeen gaineko eraginari buruzko nahitaezko txosten lotesleak egin daitezen sustatzea.

5 Haur eta nerabeei buruzko Batzorde edo Taldearteko baten eraketa sustatzea Eusko Legebiltzarrean.

6 Haur eta Nerabeen Lagun den Euskadiren eredurantz aurrera egitea.

2.2. Inbertsio publikoa: EAEko aurrekontuetan ikus eta identifika daitezkeen haur eta nerabeen aldeko politikak

Hautzaroan eta nerabezaroan inbertitzea lehenetsi behar da, orain inoiz baino gehiago, erantzukizun legal eta etikoaz gain, politika ekonomiko eta sozialetan ondorioak dituelako. Pobreziaren edo eskola-porrotaren inpaktuak askoz ere zailagoak dira konpontzen hautzaroan lantzen ez badira.

Haur eta nerabeentzako eta familientzako gizarte-babeseko politiketan egindako inbertsioa Europako batez bestekotik urrun dago.

Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordea oso kezkatuta dago murrizketek haurren eskubideak benetan gauzatzeko izan duten eraginagatik, batez ere hezkuntzan eta gizarte-babesean. EAEn, haur eta nerabeen %26,4 pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daude (PGDI 2018).

Inbertsioak babestuta egon behar du kasu guztietan, epe luzerako ekintzak planifikatzea ahalbidetuko duen inbertsio nahikoa, egokia eta egonkorra ziurtatuz. Hori, gure mugetatik haratago, inbertitzeko eta haurrak babesteko ere aplikatzen da. COVID-19ak eragindako krisiaren osteko berreraikuntzaren testuinguru honetan, gure ustez ez luke murrizketarik izan behar, hautzaroan eta nerabezaroan inbertitzea ez baita oztopo bat krisitik ateratzeko, baizik eta, aitzitik, hori egiteko laguntza bat.

Ondorioz, haurrekin eta nerabeekin konpromisoa duen komunitate batek, haurren ongizaterako eta babeserako funtsak handitzeaz gain, honako hauek sustatuko ditu legegintzaldi berrian, eta gobernu-programan sartuko ditu:



7 Berariaz aitortzea haurrak eta nerabeak aurrekontu-lehentasuneko printzipiotzat, inbertsio nahikoa, egokia eta egonkorra bermatuz, familia-politiken pisu handiagoa barne, eta etxe motaren arabera mozkinen eta zergen sistema osoaren birbanatze-gaitasuna hobetuz; horrek aukera ematen du ekintzak planifikatzeko, epe ertain eta luzera, baita haurren eskubideak gure mugetatik harago betetzen direla bermatzeko ere.

8 Aurrekontu-partidak Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin lerrokatzea, benetan bete daitezen, baita 2030 Agendaren helburu eta helburuekin ere, ezarpenaren jarraipen ekonomikoa egiteko eta baliabideak haur ahulenengana iristen direla bermatzeko.

9 Haurrei zuzendutako baliabideen neurketa eta gizatalde horrek aurrekontuetan eta inbertsio publikoan duen eraginari buruzko txostenak sartzea, haurrei zuzendutako baliabideak aztertze, horien jarraipena egiteko eta babesteko tresna gisa.

2.3. Haurren parte-hartzea eta zaintza: haurrak eta nerabeak erakundeetan ordezkatzuta egon behar dira eta kontuan hartu behar dira politika publikoen garapenean

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren arabera, haurren eta nerabeen parte-hartzea hezkuntzarako, osasunerako edo nortasunerako sarbidearen maila bereko eskubidea da. Beraz, Haurraren Eskubideen Batzordeak Espainiako Estatuari egindako oharren arabera, bermatu behar da EAEko haur eta nerabeak libre izango direla beraiei eragiten dieten gaiei buruzko beren ikuspuntuak adierazteko, eta garrantzitsuenak: kontuan hartu behar dira. Horren ondorioz, hurrekin konprometitu dagoen komunitate batek badaki zer gai diren garrantzitsuenak haur eta nerabeentzat, haien ikuspuntuak entzuten baititu eta erabakiak hartzeko prozesuetan eta krisialditik ateratzeko politika publikoen diseinuan eragin ahal izateko bideak gaitzen baititu.

Horretarako, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hau proposatzen du:

10 Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren sorrera sustatzea, lurraldeetako eta tokiko espazio eta kanal egonkorak indartzeko eta sendotzeko, eta, horrez gain, EAEko haur eta nerabeen esperientziak, beharrak, interesak eta proposamenak zuzenean entzutea eta kontuan hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan.

11 Tokiko eta Lurralde Kontseiluak erraztu eta sustatzea, hurrek eta nerabek parte hartzeko Haurren Lagun diren Hiriak ekimenaren esparruan.

12 Haur eta nerabeei egokitutako gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen GAZTE IREKIA ataria sustatzea.

2.4. Datuak biltzea eta aztertzea: haur eta nerabeen errealitatea ezagutzea eta adieraztea

Haur eta nerabeei buruzko datu zehatzak, banakatuak, eguneratuak eta aldizkakoak, bildu eta aztertzeak haurren benetako egoera ezagutzea ahalbidetzen du, eta, ondorioz, haien ongizatea eta eskubideak bermatzeko politika egokiagoak eta eraginkorragoak diseinatzea errazten du.

Horretarako, EAEk honako hauek egin beharko lituzke:

13 EUSTATen datuak biltzeko gaitasuna handitzea, bai eta datu horiek bereiztea ere, bereziki, kalteberatasun-egoeran dauden haur eta nerabeen desberdintasun ekonomiko eta sozialei eta informazioaren eskuragarritasunari dagokienez, eta horretarako behar den aurrekontua zehaztea.

14 Informazioa biltzeko sistema homogeneo bat ezartzea, azterketa autonomo, sistematiko, integrala eta gardena egin ahal izateko, adierazleak eta datuak publikoak eta eskuragarriak izanik.



HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA KALITATEZKOA

Hurrekin eta nerabeekin konprometituta dagoen komunitate batek kalitatezko hezkuntza pertsona guztien garapenaren eta aukera-berdintasunaren zerbitzura jartzen du eta, bereziki, talde ahulenak behatzen ditu, 2030 Agenda eta GIH 4aren ildotik.

COVID-19a agertzeak gure eskolaren konpentsazio sozialaren balio izugarria hautematea ahalbidetu digu, baita bere muga eta akats guztiekin ere. Konfinamendu-asteetan, ikaskuntza-prozesuetan izandako eraginaren alderdi batzuk agerian geratu

ziren, adibidez: ikasle guztiek ezin izan zioten eskola-erritmoari baldintza berdinetan jarraitu, besteak beste, eten digitalagatik edo etxeetako egoera sozioekonomikoagatik.

Etorkizun hurbilean, kalitatezko hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatu behar dugu, konfinamendu berriak egiteko aukera aurreikusiz, krisi epidemikoak izan daitezkeelako, tokiko agerraldiak daudelako edo zenbait ikasle ezin direlako eskoletara joan gaixotasunen ondorioz.



3.1. Inbertsio publikoa hezkuntzan

EAEn, hezkuntzako inbertsio publikoa BPGren %5,14 izan da 2018an (EUSTAT), 2030erako nahi den %7tik urrun. 2019ko aurrekontuetan, hezkuntzara bideratutako zenbatekoa 2018an bezala mantendu zen ia: 2.775.998.000€, EAEko aurrekontu osoaren %24,88; aurreko urtean, berriz, aurrekontuaren %23,85 erabili zen.

Hezkuntza Ministerioak 2019an argitaratu zuen Espainiako Hezkuntzaren zifrei buruzko azken txostenaren arabera, 2016an EAEk aurkeztu zuen unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko gasturik handiena (9.054€) eta handiena ere bai bi sareetako ikasle bakoitzeko gastua kontuan hartuz gero (6.502€).

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAK argitaratutako 2016ko azken datuen arabera, Erosteke ahalmenaren parekotasunean neurtutako hezkuntza-erakundeetan (EAP) ikasle bakoitzeko egindako gastua 12.333€koa izan zen EAEn lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzara bitarteko hezkuntza-etapak batuz gero; horrek Estatu espainiarraren (9.464 €), ELGAren batez bestekoaren (10.502 €), EU23ren (10.688 €) eta Frantziaren (11.364 €) gainetik jarri zuen, nahiz eta Alemaniaren (12.583 €) eta Suediaren (13.693 €) azpitik egon.

Baliabideak inbertitzeko konpromisoak eragin positiboa du sistemaren kalitatean eta ekitatean, bai eta edukian eta orientazioan ere, hala nola haurtzaroko genero-ikuspegian eta estereotipoen hausturan, Haurren Eskubideen Batzordearen arreta-deietako bat baita.

Krisi ekonomiko eta sozialeko testuinguruetan, hezkuntzako inbertsioa handitu behar da, eta lehentasuna eman behar zaie sistema uzteko arrisku handiena duten biztanleria-sektoreetan zentratutako ekintzei. Krisi horren ondorioz, eten digitalarekin lotuta dauden erronkak agerian geratu dira; izan ere, urruntasuneko hezkuntza hein handi batean zailtzen du eta desberdintasunak areagotu besterik ez ditu egiten.

Horrenbestez, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hau proposatzen du:

15 Lege-esparrua eguneratzea, EAEko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautuko duen duen Hezkuntzako Euskal Legea onartuta.

16 Ikasle bakoitzeko hezkuntzarako eta inbertsio publikorako BPGren ehunekoa handitzea, eskola publikoan arreta jarritz, hezkuntza-laguntzarako bekak ziurtatuz, derrigorrezko hezkuntzaren zeharkako kostuak estaltzeko, hala nola testuliburuak, garraioa, otorduak, eskola-jarduerak edo curriculumetik kanpokoak, talde kalteberentzat hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntza-arrakasta zaildu dezaketenak.

17 Eten digitala lehengoratzeko baliabideen hornidura handitzea, ikasle guztiek sistema informatikoak eta Interneterako konexioa eskura dituztela ziurtatuz eta irakasleak, ikasleak eta herritarrak oro har IKTetan gaitzen inbertituz.

Baliabideak inbertitzeko konpromisoak eragin positiboa du hezkuntza-sistemaren kalitatean eta ekitatean.

3.2. Eskola-uztea eta eskola-porrota

EAEEn, 2018an, uzte-tasa %7koa izan zen, Europako %10eko helburua gaindituz, eta estatuko batez bestekoaren oso azpitik.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasotako datuen arabera, Euskal Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoan (2019ko ekaina), EAEk ikasle errepikatzaleen %10 inguru ditu Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta %20 inguru DBHren erdian, eta lotura argia dago indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEC)² mailaren eta errepikapenaren artean: zenbat eta ISEC maila txikiagoa, orduan eta errepikapen-probabilitate handiagoa.

ISEC aldagaia kontuan hartuz gero, ISEC maila baxua duten ikasleen artean, %61,2 dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasle desagokiak, eta maila sozioekonomiko altuan, berriz, %5,8; hau da,



10 aldiz gehiago. DBHko 2. mailako antzeko egoera: %58 eta %6,2, hurrenez hurren.

Gainera, 2015etik 2017ra, egoera ahulean dauden ikasleen artean desagokiak direnen ehunekoa handitu egin da (igoera horretan eragina duen elementuetako bat da sisteman berandu matrikulatzen diren atzerriko ikasleak, beren egoera ekonomikoengatik egoera txarrean dauden ikasletzat hartzen direnak, adinagatik legokiekeena baino maila txikiagoan eskolatu ohi direla). Aldagai honek sistemak emaitzetan ekitatearen ikuspegitik duen erronka ere adierazten du.

EAEko ikasturte-errepikapena nahiko baxua da Lehen Hezkuntzan eta beste hezkuntza-sistema aurreratu batzuekin bat etorritik, eta bigarren txikiena da autonomia-erkidego guztiekin alderatuta.

Kurtso-errepikapenaren maila Euskadin nahiko baxua da, Lehen Hezkuntzan eta beste hezkuntza sistema aurreratuekin bat datorrenean, eta bigarren maila baxuena da autonomia erkidego guztiei dagokienez (Katalunia ondoren). DBHn, ordea, errepikapena beste sistema batzuen gainetik dago nabarmen (nahiz eta Autonomia Erkidego gehienetan baino baxuagoa izan). Azken urteetako aurrerapenak izan arren, hori da euskal hezkuntza sistemaren erronketako bat.

Era berean, irakasgai guztietan, ia ikasle etorkin guztiek dituzte emaitza txarragoak jatorrizko ikasleenak baino, nahiz eta bi taldeen arteko aldea murrizten ari den. Gainera, COVID-19ak eragindako egungo egoerak adierazten du eskola-porrota eta eskola-uztea areagotu egingo direla ekintza-plan espezifikorik ezartzen ez bada.

UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hau proposatzen du:

² Ikasleen galdera-sortan jasotako erantzunetan oinarrituta kalkulaturako indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEC), besteak beste, honako alderdi hauek sartzen dira: aitaren eta amaren maila profesionala, familiaren gehienezko ikasketa-maila, etxean dauden liburuen kopurua eta analisiaren arabera bereziki garrantzitsuak diren zenbait kultura-ondasun edukitzea (liburuak, prentsa, aldizkari espezializatuak, ordenagailua eta etxeko Internet...).

18 Eskola-uzte goiztiarra eta prebentzio-, esku-hartze- eta konpentsazio-neurriak murriztuko dituen ekitate-ikuspegiko politikak prestatzea eta ezartzea, arreta berezia jarritz eskola-uzte goiztiarra izateko arrisku handiena duten pertsonen, ikasle immigranteen, erromaniar komunitatekoen eta/edo desgaituen, eta babes-sisteman eta diru-sarrera gutxien dituztenen, ziurtatuz behar besteko laguntza jasotzen dutela eskolan jarraitzeko eta ez-betetze printzipioa benetan eta eraginkortasunez betetzeko. Inor atzean utzi barik.

19 EAEko hezkuntza-administrazioak zentralizatutako irakaskuntza digitaleko plataformen garapenean inbertitzea, honako hauek bermatzeko: homogeneotasuna, sarbidearen kalitatea, absentismoaren aurkako borroka, datu pertsonalen babesa eta ikasleen, irakasleen eta eskolen zibersegurtasuna, eta larrialdiko urrutiko irakaskuntza-programa bat.

20 Eskolaz kanpoko laguntza-programak ezartzea familiei, bereziki egoera ahulean daudenei, hezkuntza-jarraipena egiteko.

21 Eskola-zailtasunen diagnostiko goiztiarreko neurriak sartzea, esku-hartze prebentiboa eta banakakoa egin ahal izateko.

22 Eskola guztietan Ongizateko eta Haurren Babeserako koordinatzailearen figura ezartzea, haurren eta nerabeen aurkako indarkeria- edo abusu-susmoei, gizarte-bazterkeria eta haur-pobreziari, eskola-porrota eta eskola-uzteari eta arrakala digitalaren ondoriozko hezkuntzarako sarbiderik ezari buruzko erantzuna identifikatu eta bideratzeko, eta behar berezietarako arreta egokia bermatzea.



3.3. 0-3 urte bitarteko haur-hezkuntza

Adin txikietan eskolatuta, 3 eta 6 urte bitarteko ikasleen eskolatzeko osoa lortu nahi da, eta 3 urtetik beherakoen eskolatzeko pixkanaka handitu. Gero eta ebidentzia enpiriko handiagoa dago adin goiztiarretako hezkuntzak, lana eta familia uztartzea errazteaz gain, eskola-arrakasta errazten duela, bereziki ingurune behartsuetako ikasleena. Horregatik, hezkuntza-politiken helburuetako bat da handitzea.

EAEk bilakaera positiboa izan du 2012tik 0 eta 5 urte bitarteko haur eskolatuaren tasan. 2016-2017 ikasturtean, eskolatzeko-tasa %15etik gorakoa da urtebete baino gutxiagorekin, %45,7ko tasa du urtebeterekin, %93,5ekoa 2 urterekin eta %99tik gorakoa 3,4 eta 5 urterekin; hori eskolatzeko-tasa osoa gisa ezagutzen da.

0-3 urteko eskolatzekoaren alderaketa eginez gero, azpimarratzekoa da EAEk dela eskolatzeko-tasa %15etik gorakoa duen erkidego bakarrenetakoa (%17,5), %45,7ko tasa duena (urte 1) eta %93,5ekoa duena (2 urte), gainerako autonomia-erkidegoak baino askoz handiagoa. Europak 2020rako ezarritako helburua betetzen du.

0-2 urte arteko tartea kontuan hartuz gero, EAE berriro nabarmentzen da %52,8ko tasarekin, Madrilgo Erkidegoaren oso aurretik, tasa handiena

duen bigarren erkidegoa baita (%47,2). Bi urtetik aurrera, tasa osoa lortzen du, Europa 2020ren helburua betez.

0-3 urte bitarteko eskolatzeko-tasa garbiari dagokionez, EAEn azpimarragarriena 2 urtera iristen den maila da: %92,9 (%93,1 nesken kasuan eta %92,7 mutilen kasuan), tasa handiena duten erkidegoak baino 20 puntu gehiago.

Beraz, UNICEF Euskal Herriko Batzordeak honako hau proposatzen du:

23 0 eta 3 urte bitarteko lehen haurren hezkuntza-zikloan, hezkuntza publikoaren tasei eustea eta kalitatea handitzea, unibertsala eta eskuragarria bihurtuz, bereziki egoera ahuletan dauden haurrentzat. Administrazioak erabat babestutako zentroak gehitu behar dira, eta prezio publikoen eta prezio sozialen sistema bat ezarri, baliabide gutxien dituzten familiak kontuan hartuko dituen. Era berean, Europako Batzordearen Haurren Arretarako Sarearen gomendioak pixkanaka sartzeko, irakasleen eta ikasleen ratioei dagokionez.

Izan daitezkeen desberdintasunak leheneratzeko aukera handienetako bat 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza da, hain zuzen ere.



EKITATEA ETA GIZARTERATZEA

